

Kulturgintza

Senpereko Larraldea Ma danseuse!

JUAN GORRITIK Sarako elizan erretako egurrekin egindako eskultura parean, hormak Auxtin Zamoraren argazki eta poesiez atonduta. Lehen solairuan, ate bat zabaldu eta Iparraldeko Bertularien Lagunak elkarreko egoitza. Iparraldeko I. Txapelketa hemendik antolatu da. Ondoan, Euskal Herriaren Euskarazekoen bulegoa, gaur hutsik. “Hemen beste mota bateko jendea ibiltzen da, badakizu *piercing* dunak-eta”.

Bigarren solairuan areto handiak, margolanen beteak. Udar bezala, pintura erakusketa egon da zabalik, UR taldeak antolatuta, aurtan Baztango pintoreak ardatz hartuta –Apezetxea, Arizmendi, Ana Marin, Tomas Sobrino–, gehi beste bidaide batzuk, tartean Gonzalo Etxebarria, Barkoxen kokaturiko bilbotarra.

Udatik kanpora, Senpereko Ziricolatz dantza taldeko nagusiek baliatzen dituzte gela hauek entseguetarako. Eusko Ikaskuntzakoek eta Herri Urratsekoek ere erabiltzen dute Larraldea batzarretarako. Udaberrian, Hatsa elkarteak antolatzen duen Poesia Eguna hemen ospatu zen.

Eskaileretan gora, ganbaran, beste asmo baten oinarriak: “hemen ari naiz prestatzen datoren urterako beste erakusketa bat. Hemen ditugu Antonio Valverdekin egindako margolan eta marrazkien kopiak, denak bertularienak: Txirrita, Uztapide, Basarri...”. Baina Hegoaldeko bertulariak bakarrik erretratatu zituen *Ayaldek*, eta hortaz Andoni Iturriozek Zoé Bray pintoreari eskatu dizkio Iparraldekoenak, Xalbador eta Mattinengandik hasi eta Arzallus eta Colinaren ganaino. “Erakusketa prest dagoenean, bertulari gazteak etorririko dira erretratuen aurrean aritzeko”.

Larraldea, XVI. mendeko etxaldea Senpereko Amotz auzoan. Eta bertan XXI. mendeko mezenas bat, Andoni Iturrioz. Musika kaxa erraldoi bat balitz bezala, zabaltzen den ate bakoitzak kulturaren alor batera garamatza Larraldean.

ELIXABETE GARMENDIA
Argazkia: Andoni Iturrioz

Beheko argazkia Senpereko Larraldea etxaldearen kanpoaldetik ateratakoa da. Andoni Iturriozek kulturaren alor ugari lantzeko txoko bihurtu du eraikina.

Bertsozaletasuna, aitarengandik datorkiola. Manuel Iturrioz, Orexakoa, mikeletea, gerra garaian Hernaniko *Dragones* batalloierekin ibilia, Iparraldera ihes egin eta II. Mundu Gerran *Comète* sarearen

laguntzaile... baina kontu hau oso berandu jakin zuen Andonik. Aita, 80 urtekoa zela, hasi omen zen koadernoan idatzi eta idatzi. Zertan ari zara? eta erantzun garbirik ez. Harik eta koadernoak senitartekoren bati utzi eta deskubritu zituzten arte: *Comète*koekin egin zituen ibilerak kontatzen zituen. “Baina gehiago ikertu behar dut” dio Andonik, aitzak bizi guztian gorde zuen sekretu hartaz.

Parisko erbestean, aita langile soila, ez zegoen dirurik ikasketetarako. Hamazortzi urterekin, lanera. 1972an, hamar lagunen artean informatikako zerbitzuak eskaintzen zituen enpresa bat sortu zuten. Bost mila enplegatu izatera iritsi ziren, guztiak bazkideak, eta Iturrioz zuzendari nagusia. Bere gogoz kontra, enpresa amerikanoei saltzea erabaki zuten. “Saldu eta gero, erretreta hartu eta izokinak bezala, sorlekurat, Euskal Herrira etorri nintzen”. Hori, Parisez gain, Kalifornian –Berkeleyn ikasten–, Londresen eta Bartzelonan bizitu eta gero.

Larraldeko sukaldeari gaztaina puska bakarrek mahai luzeak ematen dio neurria. Ordenagailuan berritzen hasi zireneko irudiak. Anaia zenari erosi zion etxea Andonik, hark emaztearen familiari erosi zion bezala, galtzeko zorian zegoela. Logelan, oheburuak emazte eder baten argazkia du zaindaria, Paxkalin Zubieta, anaiarekin batera, Larraldeko azken biztanlea.

Museo bat muntatzea pentsatu zuen hasieran, baina laster ohartu omen zen museoa gauza hila zitekeela. Orduan bururatu zitzaion euskal kulturaren aldeko tresna bihurtu behar zuela XVI. mendeko etxaldea.

“Nik ez dut gastatzen. Mendizalea naiz, nere *hobby* da sukaldaritza. Hau da... nola esango nizuke, frantsesek esaten duten bezala, *ma danseuse!* Hau ez dut egiten sosak irabazteko, baizik gastatzeko. Nere plazer da, hori da...”. ■

